## ZIZURKILGO UDALA

*Iragarkia*

Zizurkilgo Udalak, 1997ko Azaroaren 24ean eginiko Osoko Bilkuran «Balkoiak istekoedo, orokorrean, etxeen aurrekaldeak aldatzeko eskaerei buruzko Udal Ordenantza» onartu zuen. Hau 1997ko Abenduaren 5eko, 233 zenbakidun Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratua izan zen eta jendaurreko erakusketan egon den denboran inolako erreklamaziorik aurkeztu ez delarik, behin-betiko onartutzat ematen da.

Hori dela eta, Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluak xedatzen duenaren arabera testu hau argitara ematen da.

*Balkoiak isteko edo, orokorrean, etxeen aurrekaldeak aldatzeko eskaerei buruzko udal ordenantza.*

Horrelako eskaerak ugari izatea, batez ere balkoiak isteari dagozkionak, batazbesteko etxabizitzek dimentsio urriak izatearen ondorio modura uler daiteke. Horrek komenigarri egiten die biztanleei etxabizitza bere osotasunean erabiltzea. Baita ere, askotan, etxabizitzen aurrekaldeen diseinua klima egoera, orientabide,... a.a., ezaugarrietara ongi egokitzen ez dela eta, terraza edo balkoia ez dira erabilgarri gertatzen, eta beren erabilera berreskura daiteke itxi eta etxabizitza barnera atxekiz.

Hori horrela egitea, berez, hirigintza ordenamendua aldatzea bada ere, eraikitako bolumena gehitzea bait dakar, orokorrean ez du asmo lukratiborik. Horregatik, funtsean, arazoari ez zaiola heldu behar hirigintza aprobetxamendua kontrolatzearen ikuspuntutik, hiri ingurunearen itxurarekiko eraginari begiratuz baizik.

Hain zuzen ere, iste hauek puntual eta indibidualizatuki eta askotan inongo udal kontrolik gabe egin izanak, kalte garrantzitsua eragiten dute herriko paisaiarengan, inolako erizpiderik gabe desegiten bait dituzte etxabizitzen aurrekaldeak osatzen dituzten baloreak, orokorrean, urriak badira ere.

Beraz, beharrezko egiten da horrelako egoeren aurrean erizpide argi bat edukitzea. Balkoiak itxiaz edo, orokorrean, eraikuntzen aurrekaldeak aldatzearen bidez etxabizitzak hobetzeko aukerari bide emanda ere, orain arteko inertziak hautsi behar dira, kontutan izanik, Arau Subsidiarioak behin betirako onartu ondoren herriak etapa berri bati aurre egiten diola.

Aurrez adierazitakoaren ondorio modura, ondorengo Udal Ordenantza eratzen da, balkoiak isteari eta, orokorrean, eraikuntzen aurrekaldeak osatzen dituzten elementuen aldaketei dagokienean:

*1. Artikulua.*

Ordenantza hau Zizurkil udalerriko hiri lurrean ezarriko da eta bakar-bakarrik Arau Subsidiarioak onartu baino lehen eraikitako eraikuntzei.

*2. Artikulua.*

Eraikuntzaren aurrekalde osoan eragitea eskatzen duten proposamenak bakarrik aztertuko dira, haseran duten egoerarekin alderatuz eraikuntza osoaren osaketa erizpide zehatz bati erantzuten dion beste bat proposatzen denean.

## AYUNTAMIENTO DE ZIZURKIL

*Anuncio*

El Ayuntamiento de Zizurkil en sesión plenaria del 24 de noviembre de 1997 aprobó la «Ordenanza municipal en relación con las solicitudes de cierre de balcones o modificaciones de las fachadas en general». Dicho acuerdo se publicó en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 233 de fecha 5 de diciembre de 1997 y no habiéndose presentado reclamación alguna en el plazo de exposición pública, queda definitivamente aprobada.

Por ello, y de conformidad con lo dispuesto en el Artículo 70.2 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, se publica el texto de dicha Ordenanza.

*Ordenanza municipal en relación con las solicitudes de cierre de balcones o modificaciones de las fachadas en general.*

La generalización de este tipo de peticiones, sobre todo las que hacen referencia al cierre de balcones, puede ser entendida como consecuencia de las escasas dimensiones de la vivienda media, que plantea a sus ocupantes la conveniencia de procurar un aprovechamiento integral de la misma y también, en muchos casos, de la escasa adecuación de los diseños de fachada a las características climatológicas, de situación, orientación, ... etc., que convierten a la terraza o balcón en algo escasamente útil, que puede ser recuperado mediante su cierre e incorporado así al resto de la vivienda.

Aunque en rigor, tal práctica constituye una alteración del ordenamiento urbanístico, en la medida en que supone un incremento del volumen construido, está por lo general desprovista de toda intencionalidad lucrativa por lo que, en lo fundamental, la cuestión debe ser abordada, no desde la óptica del control de los aprovechamientos urbanísticos, sino desde su repercusión en la imagen del entorno urbano.

En efecto, el carácter puntual e individualizado de los cerramientos y la frecuencia con la que estos se han producido al margen de todo tipo de control municipal, provocan un importante deterioro en la calidad del paisaje urbano al destruir sin ningún tipo de criterio los valores compositivos de las fachadas que por otra parte resultan, en general, escasos.

Se impone por lo tanto la necesidad de adoptar un criterio claro frente a éste tipo de actuaciones de manera que, admitiendo la posibilidad de mejora de las viviendas a través del cierre de balcones o en general de la modificación de la fachada de los edificios, se rompan las inercias del pasado, ahora que el municipio inicia una nueva etapa tras la aprobación definitiva de las Normas Subsidiarias.

Como consecuencia de lo anteriormente expuesto, surge la siguiente Ordenanza Municipal con respecto a los cerramientos de balcones y, en general, sobre las modificaciones de elementos que formen parte de las fachadas de los edificios:

*Artículo 1.*

La presente Ordenanza será de aplicación dentro del suelo urbano del municipio de Zizurkil yexclusivamente a aquellas edificaciones construidas con anterioridad a la fecha de aprobación de las Normas Subsidiarias.

*Artículo 2.*

Se estudiarán exclusivamente aquellas propuestas que se formulen como intervención en la totalidad de la fachada del edificio, de forma que frente a su situación inicial, se proponga otra que responda a un determinado criterio compositivo del conjunto de la misma.

*3. Artikulua.*

Aurrekalde osoaren aldaketa proposamena onartu ahal izango da emaitza onargarritzat hartzen bada ikuspuntu estetiko eta osaketakotik, ez eraikuntza bera bakarrik, baizik eta baita ere bere inguruko eraikuntzekiko.

*4. Artikulua.*

Proposatzen diren aldaketek inoiz ezingo dute erakarri eraikitako azaleraren gehikuntza bat.

*5. Artikulua.*

Proposatzen den aldaketak eraikuntzaren egitura elementuekiko interbentzioa badakar, nahitaezkoa izango da goi mailako arkitektuak idatzitako proiektu teknikoa aurkeztea.

Gainontzeko kasuetan, interbentzioaren izaerak horrela gomendatuko balu, Udalak goi mailako arkitektuak idatzitako proiektu teknikoa eskatu ahal izango du halaber.

*6. Artikulua.*

Nolanahi ere, baimen agiria eskatzeko beharrezko dokumentazioaz gain: memoria, proposamenaren egoera eta deskribapen planoak eta aurrekontu desglosatua, eraikuntzaren aurrekaldearen egungo egoeraren planoa eta proposamenarena aurkeztu beharko dira, ondoko eraikuntzen aurrekaldeak edo, horrelakorik ezean, beraien argazkiak barne.

*7. Artikulua.*

Dagozkion lanak, azkenean onartuak badira, bere osotasunean eta fase bakar batetan gauzatu beharko dira, lan baimen agiria ematerakoan adierazitako epean.

Zizurkil, 1998ko urtarrila 22.—Alkateak.

(34) (557)

*Artículo 3.*

La propuesta de modificación del conjunto de la fachada podrá ser admitida solo si el resultado se considera aceptable desde el punto de vista estético y compositivo, no solo en sí misma, sino en relación con los edificios de su entorno.

*Artículo 4.*

En ningún caso las modificaciones que se propongan podrán comportar un aumento de la superficie construida.

*Artículo 5.*

Si la modificación que se proponga comporta la intervención sobre elementos estructurales del edificio resultará imprescindible la presentación de proyecto técnico redactado por arquitecto superior.

En el resto de los casos, si el caracter de la intervención así lo aconsejase, el Ayuntamiento podrá exigir también proyecto técnico redactado por arquitecto superior.

*Artículo 6.*

En cualquiera de los casos, además de la documentación necesaria para la solicitud de licencia: memoria, planos de situación y descriptivos de la propuesta y presupuesto desglosado, se deberá presentar plano del estado actual de la fachada así como de la propuesta, incluyendo las fachadas de los edificios contiguos o, en su defecto, fotografías de los mismos.

*Artículo 7.*

Las obras correspondientes, si son finalmente admitidas deberán ejecutarse en su totalidad y enuna única fase dentro del plazo señalado en laconcesión de licencia.

Zizurkil, a 22 de enero de 1998.—La Alcalde.

(34) (557)

## UDAL EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA

*1998ko aurrekontua*

Udal Euskaldunen Mankonumintateak, 1997ko abenduaren 13an eginiko bilkura berezian, 1998ko aurrekontua orokorra hasiera batean onetsi zuen. Hona hemen kapituluka laburtirik:

*DIRUSARRERAK*

| | *Pezetak* |
|---|---|
| III Kapitulua | 600.000 |
| IV Kapitulua | 17.000.000 |
| V Kapitulua | 30.000 |
| *Guztira* | 17.630.000 |

*GASTUAK*

| | *Pezetak* |
|---|---|
| I Kapitulua | 436.100 |
| II Kapitulua | 17.105.455 |
| *Guztira* | 17.541.555 |

Aurrekontuaren espedientea jendaurrean egónen da, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hamabost laneguneko epearen barrenean, herritarrek edo interesatuek, aztertu ondoren, egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua automatikoki behin betioz onartutzat joko da.

Leitza, 1998ko urtarrilak 5.—Mikel Illarregi Elberdin, Lehendakariak. (316)

## UDAL EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA

*Presupuesto de 1998*

La mancomunidad Udal Euskaldunen Mankomunitatea, en sesión extraordinaria celebrada el 13 de diciembre de 1997, aprobó con carácter inicial el Presupuesto General para el ejercicio de 1998, cuyo resumen por capítulos es el siguiente:

*INGRESOS*

| | *Pesetas* |
|---|---|
| Capítulo III | 600.000 |
| Capítulo IV | 17.000.000 |
| Capítulo V | 30.000 |
| *Total* | 17.630.000 |

*GASTOS*

| | *Pesetas* |
|---|---|
| Capítulo I | 436.100 |
| Capítulo II | 17.105.455 |
| *Total* | 17.541.555 |

El expediente del Presupuesto permanecerá expuesto al público durante quince días hábiles desde la publicación de este anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, con el fin de que los ciudadanos e interesados puedan examinarlo y presentar las reclamaciones que estimen oportunas.

En caso de que no hubiera reclamaciones, el Presupuesto quedará aprobado definitivamente.

Leitza, a 5 de enero de 1998.—El Presidente, Mikel Illarregi Elberdin. (316)